

## 8.- FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure funtsezko jarduera kalitatezko zaintza zerbitzua ematea izango da. Horretarako, harreman pertsonala ahal bezain estua izan behar da. Konfiantza eman behar diegu, beste herri, kultura eta ohitura desberdinetatik baitatoz, eta enpatiarekin harremandu behar gara beraiekin.

Etorkinei ahal zaizkien zailtasunetan lagundu, jendarteratze prozesua eta inklusioa helburu izanik. Era askotako laguntza eskeiniko diegu, gizarteratzeko prozesuan, erreztasunak emateko asmoarekin.

Guk eskainiko dugun zerbitzu printzipala 0-6 urte bitarteko haurren zaintza izango da. Zaintza zerbitzu honetan, aspektu hauen ezinbestekoak izango dira:

- **Hezitzaile kualifikatuak.** Ezinbestekoa izango da kalitatezko zerbitzua eman behar badiegu. Beti ahalegindu behar da hezitzaile kalifikatuak izatea, baina are gehiago kasun honetan. Denak izango baitira arrisku sozialean dauden familiak, eta honek ahalik eta hezitzaile kalifikatuenak behar ditu. Printzipioz gutariko 4 izango gara hezitzaileak, baina denbora aurrera joan ahala seguruena gehiago kontratatuko ditugula.
- **Egokitutako materiala.** Hezitzaileak bere lana behar den moduan egiteko eta haurrak gurekin dauden bitartean behar dituen beharrak asetzeko, eroso egoteko eta haurren garapena bere osotasunean aurrera eramateko, materiala egokituta egon beharko da.
- **Euskararen erabilera.** Hezitzaile euskaldunok beti sustatu behar dugu euskararen erabilera, baina kasu honetan indar guztiak jarri behar ditugu hau lortzeko. Gure zerbitzua famili etorkinen haurrei zuzenduta dago konkretuki. Beraz, euskararen erabilera sustatzea ezinbestekoa da. Eta honek ez du esan nahi bakarrik euskara hitzegitea, gure kultura eta ohiturak ezagutzea ere bai, inklusioa benetakoa izan dadin.
- **Haurraren erritmoak errespetatu** , mugimendu autonomia eta norbanakoaren izaera. Haur bakoitza bere denbora behar duelako, eta gainera kontutan hartu behar dugu etorkinak direla, eta beraientzat bizitzako aldaketa handi baten murgilduta daude.

- **Hezkidetza eta aniztasuna** errespetatuko den espazioa sortuko dugu, bizikidetzan oinarritua. Horretarako, ahalegingu behar gara egingo ditugun jarduerak gehienak leku itxi batean ez izatea. Hezkidetza eta aniztasuna sustatzeko, jarduerak kanpoan izan behar dira ahal den heinean, batez ere 3-6 urte bitartean. Beste familiekin harremanak behar dira inklusioa sustatzeko. 0-3 adin tartekoekin, ez gara kalera hainbeste aterako, oraindik oso txikiak direlako.